

Cuerdo eta Jubin, Asian

Birmanian eta Txinan dabilta orain ▶ 4-5



Gerontologikoaren aldeko plataforma aurkeztu dute


TOLOSA ▶ «Kendu nahi diguten altxorra defendatzeko» sortu dute eta parte-hartzea eskatzen dute

KALTEAK ▶ Kaltetuak «denok» garela diote; bihar bilera irekia egingo dute Kultur Etxean ▶ 6



Omenaldi jendetsua Eneko Gorostidiri

Hizlariak, kultura, manifestazioa eta afaria izan ziren ▶ 7



I.TERRADILLOS

«Karreran irakasten ez dizkigutenak ikasi ditut»

Gipuzkoako mugatik Mugirorainoko flora aztertu du ▶ 2-3

Behera gaitzak!!!

Garbera Merkatal Gunea Donostia

Media Markt

VILLABONAKO HEZKUNTZA PUBLIKOA

JANGELA • GARRAIOA • ORIENTAZIOA • GURASO ESKOLA



Fleming Ikastetxea.
Haur Hezkuntza Arroan (2-6 urte)
Lehen Hezkuntza Arrazainen (6-12 urte)
Tel.: 943 69 35 12 • Tel./Faxa: 943 691413
012277aa@hezkuntza.net

Matrikulazio epea:
Otsailaren
14tik 25era



Erniozea Ikastetxea.
Derrigorrezko Bigarren hezkuntza
Arrazainen (12-16 urte)
Tel.-faxes: 943 69 37 33
012952aa@hezkuntza.net

UZTURRETIK ▶
EKAIN GARMENDIAMendeurrenik
gabeko
kijotea

Afalondoa telebista parran hasi berrian, albo bizilagunari buruz hizketan aritu gara pisukidea eta biok. Tipo kurioa da, gorpuzkera grotesko antzekoa izanagatik sinpatia erraz hartzen zaien horietakoa. Laurogeiak paseak izango ditu segur aski; luzera txikikoa eta gizen antzekoa, jada gazte sasoiari baldarra zuen gorpuzkerak urteekin txarrera egin duela nabari zaio. Huts-tarteak hortzak baino ugariago ahoan, ez dakit antiaju lodiek aurpegia areago itsusitu edota ezkutatatu egingo ote duten. Halere, esan bezala, begiko erraz hartzen den horietakoa da. Hala kontatu zidan pisukideak, behin harekin hizketan, auzoan izandako lapurretak zirela-eta beldurrak hartuta zebilela aitortu omen zion. Lasai egoteko, hark. Seriotasun osoz, arazorik bazuen, garrasi egiteko ozen agindu omen zion, eta joango zela bera bastoiarekin lapurra uxatzera.

Hasiera batean grazia egin zidan ateraldiak. Gezurra dirudien arren, erraz imajina bainezakeen agurea, bastoia gora altxatuta uesteko lapurrak astintzen, kijoteetan kijotea, balentriak bete nahian printzesa bereganatzearen. Baina tristetik ere badu zerbait istorioak. Kijote izateak gabezia bat salatzen baitu. Eta argi nabari zaio hau nire bizilagunari, gaurko hitzeko balentriak gaztetan lortu ez zituen bizilagunen faboreak salatzen baitituzte. Ezinezko zaio bere iragana errekonozitzea, eta horrek gaurko egiazko neurriak ukatzera darama.

Denok dugu zerbait kijotetik (edo nire bizilagunetik). Denok eraldatzen ditugu, nahita edo nahi gabe, inguratzen gaituenaren neurriak, eta horien araberako helburuak martxan jartzen ditugulako plantak egiten ditugu, bai besteen bai geure buruaren aurrean. Halere, ez dut uste ondorioa tragikoa-edo denik. Erraza baita gezurrezko erraldoen aurka borroka egiteko plantetan dabilenari sinpatia hartzea. Nik, behintzat, sinpatiaz begiratzeko diot nire bizilagunari.

MIREN LARBURU ▶ INGURUGIRO ZIENTZIETAN LIZENTZIATUA

«Interesgarria litzateke
jendeak nik egindako
lanarekin ikastea»

Lehen trenbide zaharra zegoen Plazaolako naturbidearen zonalde bateko landareen, zuhaitzen eta zuhaixken azterketa egiten jardun du hiru hilabeteetan

IÑIGO TERRADILLOS

Berastegiari gazte honek karre-rako praktika moduan lan interesgarria egin zuen, Plazaolako naturbidearen zati batean aurkitzen diren landare eta zuhaitzen azterketa hain zuzen ere. Lan gogorra izan bada ere, bertan aurkitzen diren landare, zuhaitz eta zuhaixka guztiak bereizten eta hauen ezaugarriak zerrendatzen ikasi du, udan 3 hilabetez zonalde honetako flora arakatzen jardun eta gero.

Nondik nora iritsi zitzaizun
horrelako lan bat egiteko au-
kera?

Plazaolako partzuergo turistikoa-ekin bat egin nuen eta oraindik gisa horretako lan bat egiteko zegoenez, Gipuzkoako mugatik Mugiroraino bitarteko flora aztertzea proposatu zidaten.

Zertan datza, zehatz mehatz,
egin berri duzun ikerketak?

Plazaolako naturbidean, hau da, trenbide zaharra dagoen bidean aurki daitezkeen landareak, zuhaixkak eta zuhaitzak

aztertu ditut hainbat zatitan: Plazaolako estazio dagoen lekutik Leitzako estaziora, bertatik Uitziko tuneleraino, Uitziko estaziotik Lekunberriko estaziora eta Lekunberritik Mugiroraino. Uitziko tunelaren kasuan, barrutik pasa ezin den kanpotik egin nuen zati hori Uitziko herriraino bitartean. **Eta noski landare eta zuhaitz desberdinak topatuko dira zonalde desberdinetan.** Gaztaina, lizarra eta haritza dira nagusi Plazaola eta Leitzako zonaldean, eta Uitziko eta Le-

kunberri aldean, berriz, Mediterraneo inguruko landareekin egin dezakezu topo.

Lan gogorra izango zen,
ezta?

Uztaila, abuztua eta iraila pasa ditut egunero ingurune horietan hazten diren landareak eta zuhaitzak ikusten eta miatzen. Lan handia egin dut, baina karre-reran erakusten ez dizkigutenak ikasi ahal izan ditut. Gainera, departamentuko eta partzuergoko tutoreen laguntza ere izan dut.

Interesgarria izango litzateke
zuk egindakoarekin jendeak
ere ikastea.

Asko gustatuko litzaidake, Plazaolako naturbidean panelen bidez landareen azalpenak ematea, horrela erabilgarria izan dela ikusiko bainuke. Gainera, jende asko aukeratzen du mendi bueltak egiteko bide hau oso polita baita eta interesgarria litzateke ibiltzen doanarentzat zein zuhaitz eta landare dituen inguruan ikustea.

Txikitatik al zenuen buruan
naturarekin zerikusia duten
lanak egin nahi zenituela?

Bai. Ez nengoen oso ziur zein karrera aukeratu behar nuen, baina bai arlo honekin zerikusia izan behar zuela. Naturaren inguruan bizi naiz eta horregatik gustuko izan dut beti.

PERTSONALA ▶

▶ Berastegin jaioa ▶ 1978ko martxoaren 18an ▶ Denbora librean eskulana egitea atsegin du ▶ Naturarekin zerikusia duen gustia egitea gustatzen zaio.

Mendia ala hondartza? Mendia nahiago; txiki-txikitatik mendi inguruan bizi eta gero hura maitatzen bukatzen duzu. **Oporretarako zein leku aukeratzeko duzu?** Leku desberdinak bisitatzea gustatzen zait. Tunes eta Turkian izan nintzen eta horrelako kultura desberdinak ezagutzea asko atsegin dut, asko ikasten delako haie-tatik.



NATURA

«Mendi eta basoen inguruan bizi izan naiz txikitatik eta horregatik atsegin dut naturarekin zerikusia duen gustia»



IÑIGO TERRADILLOS

KOMIKIA ▶ GORKA SALABERRIA



IRITZIA ▶ AMANDO HERNANDEZ (EUSKALTEGIKO IRAKASLEA)

'Egunero' HITZA bihurtu zenekoa

Bi urte pasatu dira *Euskaldunon Egunkaria* itxi zutenetik. Eta on da gogoratzea, memoria txarrak gaizkileek baino kalte handiagoa egiten baitu askotan. On da gogoratzea nola bizitu genuen egun hura. Harridura, beldurra, amorrua... dena nahasian; baina, denaren gainetik, elkartzasuna, elkartzasun-uholdea.

Goizeko zazpitan irratan berria entzun nuenetik gauera arte erretzeari utzitako bi astetako zigarro guztiak biriketatu nituen. Euskarak eman duen urrats garrantzitsuenetako bat, *Euskaldunon Egunkaria*, itxita; justifikazio parregarri batekin —eta parregarri ez da beti parregurea ematen diguna—, urte askotako lana eta izerdia pikutara. Ez zitzaidan buruan sartzen, ezin zitekeen. Batekin hitz egin, besteari deitu, denak galdera berberak: Zergatik? Nola? Orain, zer? Hurrengoa nor? Zer egin dezakegu? Nola lagundu? Segituan protesta, pankartak, kontzentrazioak... eta Donostiako manifestazio erraldoi hura.

Milaka lagun Donostia betetzen, tantak ginen unolde hartan. Bukatu zenean, ordea, diferentzia: batzuk etxera bueltatu ginen, ez genuen ikusten zer beste egin genezakeen; beste tanta batzuk, etxera beharrean, lanera bueltatu ziren. Tanta horiek,

errekasto bildu, lanera; eta horiek gogoratu nahi nituzke orain eta hemen: *Euskaldunon Egunkariako* langileak.

Enpresa bat ixten denean, langileen jarrerara, normalean, beren lanpostuak salbatzea izaten da, guztiz logiko eta zilegia. *Euskaldunon Egunkariako* langileen jarrera bestelakoa izan zen, ordea: Egunkaria atera behar zen, kosta ahala kosta. *Euskal Herria Egunero* bihurtu zen *Tolosaldean Egunero*; ez handik hilabetera edo astebetara, ez, biharamunean, otsailaren 21ean. Indemnitzazioak, langabezi-sariak, soldatak, hipotekak... ez ziren izan haien lehenengo ardura. Lehenengo egunkaria ateratzea zen, eta atera egin zuten. Oso baldintza kaxkarretan, oso behin-behineko egoeran; baina *Euskal Herria Egunero* kalean izan genuen, ia urte hartako sanjoanek bitartean.

On da gogoratzea zer gertatu zen otsailaren 20an duela bi urte. Baina hori bezain mesedegarri gogora ekartzea zer egin den bi urte honetan. *Egunero*, *Berria*, 6 HITZA dagoeneko, Internetera bueltatu... Egoera normalizatura itzuli gara kasik —eta kasik diot, *Euskaldunon Egunkaria* oraindik ere itxita dagoelako, frogarik ikusi ez dugulako, epaiketak hor zain dauzkagulako...—, *Euskaldunon Egunkariak* utzitako hutsu-

nea duintasunez bete da (egin dutenek bete dute).

Jende eta erakunde askok lagundu zuten eta haien elkartzasuna ezinbestekoa izan zen egoerari buelta emateko. Eta ez nuke injustua izan nahi hori guztia ahaztuta. Baina injustuagoa izango nintzateke *Euskaldunon Egunkariako* langileen meritu eta kemenagatik izan zela aitortuko ez banu: beraiek bideratu zuten laguntza; beraiek bihurtu zuten ogi gari hura; beraiek elikatu gintuzten gu, haien zate jatekorik izango zen ala ez jakin gabe...

Gaurko eguna negar egin genueneko beste hura gogoratzeko da, langile haiei esker; bestela, oraindik negarrez.

Bukaera exajerazioa izango dela bada-ki, baina betidanik gustatu zaizkit exajerazioak.

Gure talde, erakunde, enpresa eta zerbitzuetan denak halakoak balira, gaurko erreferenduma ez litzateke hemen ea europar izan nahi dugun galdetzeko, baizik eta European, ea beraiek *Euskaldunon Egunkaria* eta *Berria* sortu dituen herriko kide izan nahi duten jakiteko. Eta giza kapital hori ezagutuko balute, erantzuna garbi ikusten dut nik.

Eskerrik asko denoi, denoi eta banan-banan.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoetalde. Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Berastegi-Elduain. 68 33 61
Bidegoian. Medikua: 68 11 34
Ibarralde. Osasun etx.: 672411
Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Lizartza. Medikua: 68 20 77
Tolosa.
 ▶ Anbulatorioa, Iarrialdia: 461111
 ▶ San Esteban: 00 68 00
 ▶ Gernikako arbola: 00 69 00
 ▶ Amaroako dispen.: 67 26 37
 ▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (Iarrialdia)
 ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
 ▶ DYA: 67 25 36
 ▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
 ▶ Ertzaintza: 53 88 20
Villabona-Aiztondo.
 Anbulatorioa: 00 69 70
Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
 ▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
 ▶ Taxia: 67 04 20
 ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04
 ▶ Aiurri aldiakaria: 30 07 32
 ▶ Tipi ttapa ald.: 948 631888

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06
 ▶ Arramele-AEK: 67 12 14
 ▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Etxebeste, J.M. Gernikako Arbola 3 (Tolosa) 943 65 10 40. Plaza. Elbarren 36 (Leitza) 112
Bihar. Bronte, C. Korreo 20 (Tolosa) 943 67 60 13. Erbiti. Lizarraga 37 (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info
Tolosa. 687 41 00 82 - 687 41 00 33.
 tolosa@tolosaldeko-hitza.info
Villabona-Aizt. 687 41 00 22.
 villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info
Anoetalde. 687 41 00 22
 anoetalde@tolosaldeko-hitza.info
Ibarralde. 687 41 00 32.
 ibarralde@tolosaldeko-hitza.info
Alegialdea. 687 41 00 34.
 alegialdea@tolosaldeko-hitza.info
Leitzalde. 687 41 01 18.
 leitzalde@tolosaldeko-hitza.info



Inauterietako argazki bilduma...

www.tolosaldeko-hitza.info

Zure argazkiak bidaliz gero, gure web orrian azalduko dira
 tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info



BIDAIAK ▶

Birmania eta Txina: 2. pausoa

Asia ekialdeko 'tsunami'-a jasan ondoren, Thailandia atzean utzi eta herrialde hauetan ibili dira azken hilabeteen Angel Cuervo eta Fabiola Jubin bidaiariak

ANGEL CUERDO

Thailandia atzean utzi genuen eta Mekong ibaiaren inguruko herrialdeen azterketa honetan, Myanmarren, gara bakoiko Birmanian, eta Txinan ibili gara azken hilabete honetan.

Hegazkina hartu behar izan genuen Myanmarren sartzeko ez baitago beste aukerarik. Gobernu militarizatu batek urte askotan guztia itxia mantendu du herrialdea eta, dibasa beharrezkoak, azken urte hauetan irekitze prozesu bat hasi bada ere, oraindik herrialdearen erreialitate ezaguna da, baita bertakoentzat. Asia ekialdeko kalteru duen tsunami-aren kasua adibide bat besterik ez da gobernuaren kontrolpean dauden komunikabideek zioten Myanmarren 50 hildako besterik ez zirela egon, hori bai, inguruko herrialdeetan izandako sarritan baino askoz gutxiago.

Hauetaz ezaz, bertakoek halaxe zioten alaba erdi irekian zutela. «Milurte hauetan araberak, Myanmarren inoiz ez da ezer pasatzen, gu beti ondo!»



Motorrez, Garraiobide asko an dira erabiltzen Angel Cuervo eta Fabiola Jubin bidosarrak Asian. FABIOLA JUBIN

Denboraren makinan atzera

Mandalayra iritsi ginen hegazkinaz. Myanmarreko bigarren hiri handiena eta gara batean hiriburua izandakoa. Nazioarteko aireportuan bertan hasi ginen somatzen ikustekoetan genduzen: argirik ez zegoen eta noizbehinka, Tximistak izango balira bezala, une labur batzuetan argitasun pittin bat sortzen zen. Kanpoko errealtate

teak horixe bera adierazten zuten, hegazkin batean ez bazik eta denboraren makinan 200 urte atzera bidaiatu genduzela.

Nekazal eta abeltzain giroa da nagusia Myanmarren, baina traktore edo antzeko beste inongo modernotasunen arazotarik gabe. Zaldiek edo idiek tiratako gurdiak mugimendurako, bufaloak lurra erretoko eta bizikleta ziren pertsonen laguntzaile fideliak. Baina badu herrialdeak berezko magia eta kolorea, begirada galdu egiten zuten ikusien gertu-tuaren ehumdaka irudi bitxi eta

ederretan. Gizon eta emakumeek aurpegia kolore horizko krema batekin igurtzen zuten eta janterako orduan, denek zeramaten *longie* izeneko gona, marnituak gizonenontzeko eta lorelunak emakumeentzeko. Bertako giroan ahalik eta gehien murgiltzeko intentzioekin, guk ere *longie* a janteri eta bizikleta onarri bezela hartuta Myanmar ezagutzarri ekin genion.

Mandalayko palazio eta tenpluak, Amarsapurko zubia, Bagoneko lautadan sakabana-tzen diren ehumdaka pagodak, hile lakaian banakortik arrantzatzen diren arrantzaileak eta Venezianer antera ur gainean altatzen diren herriak, edozein herriko merkatuetan agertzen zen etnia desberdinetako jendearen janterako berriak... Heriek Myanmarreko eskaini dituzkin trudi bakari ba-

tzuk besterik ez dira: garbi genduzen, herrialde honek badu guztia harapatzen zaituen botere berezi bat.

Ierawadi ibaian barrena

Myanmarretik ateratzeko arazo dezente jarri zituzguten. Errepidez ateratzeko galdiera egiten genduzen bakoitzean erantzuna bera zen: gerrilari, droga trafikatzale edo beste hainbat arrazotengatik muga bideak itxirik zeuden. Baina bakenean sortu zen aukera bat: Ierawadi ibaila burku batean 3 eguneko jarratuz Txinako mugara hurbiltzea eta bertatik gobernuko ofizial batek eraman-gotzintzen, bizkarzain modua, oihanean barreneko bide menditsu bat jarraituz Txinara bertara.

Barkuko esperimentia berres-tatu izan zen; gure tokia lurraren

margoturiko marra bat zen eta inguruan beste ehun pertsona genduzen. Kanpotar bakarrak izanik denon begiradak genduzen gainean, eta denbora aurrera joan ahala harreman ederra sortu zen denon artean. Azken guzian festa giroa jarri genuen, abestu eta dantzan ederki pasa genduzen denok. Ezan beharra dago arrakasta handiena gure kalkan gora. *Kaljan berak...* -surturiko mugimendua izan zen.

Muga igarotze berezia

Myanmarretik Txinara pasatzeko berriro ere denboraren makinan sartzea bezala izan zen, baina oraingo honetan denboran aurrera. Kosta zitzaizaien mugako polizia Espainia herrialdea zen zen jakitua, ahalnean ni nuen gopuratu nintzen tinatarre Sibaiak estean dela. Itxerako luzeak irauten zuten bitartean, ahal genduzen moduan saiatzen ginen uler-tzen modu jatorrean hurbiltzen ziren beste militarrek. Halaxe, sortzen arri zen giro ederra ikusirik. Pabik bideo kamera-ekin grabatzea proposatu zuten, eta gauzak nola diren, Myanmar eta Txina arteko muga konplikatuak irudiak grabatzeko baimena eman eta gainera hurrengo herria joateko tasia ordaindu ziguten militar jator hauek. Inoiz halakorik!

Txinatar drogia esnatu da

Guztion ahontan da Txina aldatu-ten ari deneko esamesa, eta bertako ikus ondoren garbi ikus daiteke hiltz horiek ez direla hutsen erortzen. Txinatar drogia esnatu da eta bere auzgarrik gero eta urrutirago iritsen ari dira. Modernizazioa errealitate bat da Txinan baina ez da industrializazioa azkar eta burugabea, ez gero; inguruko beste herrialdeen akatsak ondo aztertu eta beraraitatik ederki ikasi dute. Aurreratze prozesu honetan milaka urtean Txinak bildu duen kultura eta aberastasunarekin oreka bilatzen saiatu dira, eta baita lortu ere. Hirak nahasketak perfektu baten ageri dira: tenpluak eta zerura bidean atzetzen diren eraikitzaile, kotxeak eta bizikletak, hipermerkatuak eta merkatu zaratatuak, autoak, diskoteak eta parke lasiak, disko-tekak eta yoga egiteira joaten diren plaza eta lekuk, traje garestiak daramazten pertsona eta arropa tradizionalen jantziak eta desberdinetako jendea, ...



Merkatuan, Zopa saltzailek Myanmarreko merkatu batean kalean. F.JUBIN



Mojeak. Moje gazte budista batzuk Myanmarren, bi bidaiari tolosarrei begira. F.JUBIN

Urazen festa

Irribonig izenekoa herrian aurkitu genduzen lehen aldiz Mekong ibaila, Lancang ibaila txinatarrekin. Lehorte garaia izanik, ur gutxi zerraman ibailak eta are bankuen artean agertzen zuten bere itxura ur korronteak. Baina hala ere, bere inguruan bitxia zen nagusi! Arrantzaileak, egurrezko kanpotan merkaturu hurbiltzen ziren nekazariak, atropa garbitzen zireen emakumeak, uretan jolasean zireen umeak... Guztiak biz ziren Mekong indartsuaren babesean!

Dai etriakok dira batez ere hurrengo herrialde biziak. Mekong ibailako urak sakratuak dira berantzetan eta urteko ospakizun bereziena uraren festa da. Bertan, zahar eta gazte, gizon eta emakumeak, elkarri ura botatz bedekintzen dira ur sakratuetan. Ur bizi-tza eta biz sortzaile! Unerik



Emakumeak. Myanmarreko emakume batzuk. Jantziak eta kolore biziak erabiltzen dituzte. F.JUBIN

Urte zahar eguna Txinan

Otsailak 9 an sartu ginen txinatar urte berrian, olatarraren urtean oraingo honetan. Berperra gaueko afaria, urteko unerik bereziena da tinatarrentzat, familiarekin elkartzeko garaia. Horrek munduko jende migrazio-rik handiena sortaraten du; denek ospatu nahi dute

egun berezia familiarekin babesean. Berperran urdurutasun giroa nabarmen zuten kalesetan, gure Gabon gaueko janari eta oparien erosketekin gertatu denaren antzeko zerbitu. Arratsaldeko seiatarako dena gehienak itxi zituzten eta ordutan hasi zen festa alaietan, edozein entzuten hasi ziren auziri eta su artifizialen zaratat.

Txinan festa eta petardoak batera ditote!
Indarrak berrihurtik eta festa giroa barnean daramagula, gure bideak Laos, Kanbodia eta Vietnamen jarraituko du hurrengo egunetan. Mekong ibaiaren indarrak aurrera eramaten gaitu.
www.angelcuervo.com

Personak hezitzea eta osatzea gure erronka

JESUEN BIHOTZA IKASTOLA

2-16 urte bitarteko hezkuntza
Vilabona eta Zuzkigo ikastola

- Euskalduna eta eleonitza
- Kalitateko Hezkuntza
- Esperientziaduna

943 69 23 21 (Berrio, 49 • Vilabona)
943 69 20 58 (Berrio, 49 • Zuzkigo)
943 69 12 75 (Berrio, 49 • Zuzkigo)

bilibono@ikasola.net

TOLOSALDEA GOIMAILAKO L.H. INSTITUTUA			
FORMAZIUNITZA KASTARON (Langileentzako) 2004/05			
IKASLEEN PROZESUA BILKETA - KITA ORO MOXILARRA	ORDUAK	HABERA	ORDUTZERA
MENAG saski-irratia (guztira)	50	2005-02-21	18-21
Azterketen erakundeak (kaleko desberdina)	40	2005-02-20	18-21
Sakabana sopo (kaleko)	80	2005-02-23	18-21
Datu berria (kaleko)	30	2005-02-28	18-21
IKASLEEN PROZESUA	40	2005-04-01	18-21
LAN/LEKUTU/IRATZ/ERAKUNDE/ORDUTZERA	60	2005-04-01	18-21
MENAG saski-irratia (guztira)	50	2005-04-01	18-21

Maiatzeko informazioa: Tel: 943 65 11 47 • Buzkigo, Leku: 11 • 03000 TOLOSA
E-mail: idazkaria@bilboko.net • Web: www.bilboko.net

LANITA LUZI HEZKUNTZA GARAIA

KALITATEKO 2. EREDUA

943 65 10 63

LASKORAIN IKASTOLA

Kalitateko Heziketa Euskalduna eta eleonitza

www.laskorainkastola.net

943 69 12 72

GIZARTEA ▶

Gerontologikoaren aldeko plataforma aurkeztu dute

«Kendu nahi diguten altxor hau defendatzeko», parte-hartzea eskatu zuten atzo

IÑIGO TERRADILLOS

Atzo goizean Tolosako kultur etxean aurkeztu zuten Gerontologikoaren aldeko plataforma; hau ixteko hartu duten erabakiaren aurrean pertsona talde batek, nork bere kabuz edo kolektiboki plataforma honetan antolatzeko beharra ikusi baitu, batetik «inposaketa merkantilista eta antisozial hau salatzeko», eta bestetik «bizi garen herrian jaitzeko, bizitzeko, zahartzeko eta hala nahi izanez gero hiltzeko, gure eskubidea defendatzeko».

«Gipuzkoako Foru Diputazioako Gizarte Zerbitzuen ardura-dunak Euskal Herria plazako



Gerontologikoaren aldeko plataforma, atzo kultur etxean. I.TERRADILLOS

Gerontologikoa ixteko hartu duten erabakiaren aurrean, Tolosak eta bere eskualdeak dena 83 plaza, egun dituen %30 galduko dituela, Iurreamendi

egoitzan galduko direnekin batuta», azaldu zuten atzoko prentsaurrekoan.

«Udal ordezkariak, alkatea buru dutela behin eta berriro

ezer ez dakitela adirazi dute- la», gehitu zuten.

Era berean, kaltetuak, langileak, egoiliarak eta familiakoak ezezik denok garella esan zuten, «nork ziurtatuko digu plaza horiek ez direla gure etxekoren batek edo gutakoren batek bete behar zituenak?».

Amaitzeko, Ester Larrañagak azpikeriekin eta alderdikeriekin jokatu duela salatuz, «kendu nahi diguten altxor hau defendatzeko» herritarren parte-hartzea eskatu zuten, bai dendetan *Gerontologikoa ez itxi* dioen kartela jartzeko, bai eta astelehenetan Kultur Etxean egiten dituzten bilera irekietara etortzeko orduan ere.

KIROLAK ▶

5-2 irabazi dio Tolosak Pasajes-i denboraldiko partida hoberenean

Lehenengo zatia markagailua kontra zutela amaitu arren, partidari buelta eman zioten

I.TERRADILLOS

Sekulako partida burutu zuen atzo Tolosak Pasajes-en aurka, 5-2koarekin amaitzea lortu zuelarik.

Tolosatik, Apezetxea, Aimar, Jon, Aierbe, Artola, Romero, Orue, Lasa, Elola, Regillaga eta Blanco atera ziren berdegunera. Egindako aldaketak, guztiak ere bigarren zatian, Ilunbe

Blancorenatik, Zuloaga Lasarenatik, Garagarza Romerorenatik eta Unai Elolarenatik izan ziren.

Lehenengo zatian paretsu ibili ziren bi taldeak. Pasajesek sartu zuen lehendabiziko gola eta ondoren Orue izan zen Tolosarentzat berdinketa lortu zuena. 45. minutuan Aierbek penaltia egin zuen eta aurkariak 1-2koa sartu zuten.



5-2 irabazi zuen atzoko partidari Tolosak Pasajes-en aurka. I.TERRADILLOS

Bigarren zatian Tolosa indar berriturik atera zen eta denboraldiko joko onena eskaini zuela esan daiteke. Aimarrek berdinketaren gola egin zuen. Ondoren Orueri egindako penaltia Jonek sartu zuen 60. minutuan. 85. minutuan 4-2koa

Zuloagak egin zuen eta nor-gehiagokako azken gola, berriro, minutu bat beranduago etorriko zen Orueren eskutik.

Partida bikaina beraz eta gol festa Tolosarentzat ikuskizun paregabea eskaini zuelarik bertaratu ziren zaleei.

bixitegia
Lardi auzoa, Zubi txiki industr.
20150 ADUNA
Tel. 943 69 68 64
Faxa: 943 69 68 47

Zumeta

ESKOLA EUSKALDUNA ETA PUBLIKOA
IKAS KOMUNITATEA

PEDRO M^a OTAÑO HERRI ESKOLA

Pagamuño auzoa, 16 - ☎ 943 691478 - ZIZURKIL
Posta elektronikoa: 012041aa@hezuntza.net

iragarki laburrak ▶

Telefonistak. Harreragileak. Plaza libreak erakunde publikoetarako. Informazioa doan. 943 65 01 93.
Ostalaritza. Sukaldari laguntzaileak, sukaldariak, zerbitzariak. Plaza libreak: eskolak, egoitzak, Eusko

Jauriaritza. 943 65 01 93 telefonoa.
Eraikuntza. Igeltseroak, peoiak. Plaza finakoak Gipuzkoako udaletan Informazioa doan. 943 65 01 93.
Gidariak. Plaza libreak: eskolak, Eusko Jauriaritza, Aldunidia.

Informazioa doan. 943 65 01 93.
Haur Hezkuntza. 1.200 plaza. Sarbidea libre. Informazioa doan. 943 65 01 93.
Administrazio laguntzaileak. Laster sarrerak udal hauetan:

Hernani, Usurbil, Irun, Beasain, Aitzo, Bergara, Zorrales, Mutriku, Zizurkil, Mendaro, Anoeta. Informazioa doan 943 65 01 93.
Mantenua. Elektrikariak, iturginak, soldatzaileak, igeltseroak. Plaza

libreak: erakunde publikoak. Informazioa doan. 943 65 01 93.
Peoiak, elektrikariak, iturginak, soldatzaileak, igeltseroak. Plaza libreak erakunde publikoetan. 943 65 01 93.

AZOKA ▶

Hotza eta ura nabarmendu zen atzoko azokan

Hotzak ez die kalterik egin barazkiei; berritasunak datoz arbolaren azokan

PABLO ALBERDI

Euria eta ura izan ziren nagusi atzoko azokan. Halere, salmentak eta erosleen kopurua bere onean mantendu zen. Eskaintza, joan den astean bezala, benetan ikusgarria izan zen. Neguko barazkien itxura eta freskotasuna aipagarria suertatu zen, eta dirudienek, aste honetako hotzak eta elurak, ez die kalte handiegirik egin barazki gehienei.

Aipatzekoa izan zen ere Atari kalean bizi zen giroa. Tratuak egin ziren, eta bisitari asko pasatu ziren arbolak ikustera. Datorren asterako berrikuntza asko daukate prest arbolaren azoka berezia izango baita Tolosan. Produktu gehiago eta berritasunak ikusteko aukera izango dugu, beraz, eta ziur aski giro onenean.

ATZOKO AZOKA ▶

	merk.	gares.
Berdura plaza		
Pinu insignis	0,17	-
Lilia	1,20	-
Krabelina	4,80	-
Pensamientoa	1,00	-
Konifera	6,00	-
Azalea	3,50	-

	merk.	gares.
Bertako produktuak		
Tomatea	2,00	3,50
Kalabaza	1,50	3,00
Patata	0,66	1,00
Tipula	0,80	1,00
Azenarioa	1,00	4,00
Letxua	0,80	1,00
Arrautzak	1,30	2,10

	merk.	gares.
Produktu ekologikoak		
Sagarra	2,00	3,00
Intxaurra	4,00	6,00
Arroza	1,90	2,00
Aza	2,50	3,00

Eskubide zibil eta politikoen defentsan

18/98 AUZIA ▶ Donostiako Kursala bete egin zen atzo 18/98+ taldeak deitutako ekitaldian —argazkian taldeko Maite Aristegi—. Taldeko kideez gain, 18/98 auzian auzipetutakoak —tartean eskualdeko lau—, haien lagunak eta hainbat eragile izan ziren. Bildutakoek auzian izandako «eskubide urraketen eta bidegabekeriaren» berri zabaltzeko eta salaketa egiteko konpromisoa hartu zuten eta hilaren 26ko manifestaziorako deialdia luzatu zuten. IRUTXULOKO HITZA



TOLOSA ▶

Laskorainen DBHri buruzko informazio ekitaldia

I. GARCIA

Laskorain Ikastolak informazio ekitaldia antolatu du DBHko eskaintza ezagutu nahi duentzat. Interesa dutenek hitzordua bihar, arratsaldeko 18:00etan izango da, Usabal auzoan dagoen ikastolan bertan. Ikastola bertakoak ez diren gurasoei eta inguruko herritarrei zuzendua dago. Saioaren bukeran ikastola ezagutzeko aukera izango dute hitzaldira agertzen direnek

VILLABONA ▶ GIZARTEA

Omenaldi jendetsua Eneko Gorostidiri

Laurehun lagun inguru bildu ziren atzo arratsaldean herriko Berdura plazan billabonatar gaztearen ongi etorri ekitaldian

IMANOL GARCIA

Laurehun lagun inguru izan ziren atzo arratsaldean baldintzapean askatutako Eneko Gorostidiri eginiko ongi etorri omenaldian. Gazte billabonatarra oholta gainera igo zen ondoan ama, neskalaguna, anaita eta honen neska laguna

eta txakurra ondoan zituela. Txalapartariak, dantzariak, bertolaria eta musika talde baten emanaldia entzun eta ikusi ahal izan ziren omenaldian zehar.

Amasa-Villabonako Abertzaleak plataformak eta Tximo Herri Ekimenak hartu zuten hitza omenaldian. Eneko Gorostidik bukaera hitz egin zuen eta eskerrak eman zituen omenaldira agertutako guztiei eta «bo-

rrokaldirako deia» egin zuen «preso guztiak kalean izan arte».

Ekitaldiaren amaieran Villabonako Amnistia Aldeko Mugimenduak adierazi zuen ez dela «bizi dugun gatazkaren konponbiderik lortuko, preso bat bakarria espetxean dagoen bitartean». Ondoren manifestazioa egin zen herriko kaleetatik eta Sarasola sagardotegian afaltzen bukatu zen omenaldia.



Eneko Gorostidi, senitartekoekin, jendearen txaloak entzunez. I. GARCIA

iragarki laburrak ▶

ALOKAIRUAN

Garajea. Tolosako lurre auzoan garaje itxia alokatzen da. 609 43 59 07, 665 75 87 74.

LANA

Zaintzailea. Emakumea behar dugu Anoetan haurrak zaintzeko. 943 65 00 32.

Sukaldaria eta tabernaria.

Tabernarako sukaldaria eta tabernaria behar dira. Deitu 15:00etatik aurrera. 943 682154.

SALGAI

Etxea. Alegiako Larraitz auzoan etxea salgai. 680 57 09 52.

Ezkon soinekoa. Hanibal Laguna diseinatzailearen ezkon soinekoa salgai. 615 72 91 99.

Estetikako aparatua.

Estetikako aparatua salgai. Deitu: 660 057 605.

Nafarroa etorb, 11 • Tel.: 943 65 12 64

Emeterio Arrese, 5 • Tel.: 943 65 56 21

OSKI

OINETAKOAK • JANTZIAK TOLOSA GAZTEA

ZIZURKILGO UDALA

Zizurkilgo Udaleko Herriko Gobernu Batzarrak 2005eko otsailaren 14an ospaturiko bilkuran, udal enplegatu, langile eta zinegotzien euskara maila hobetzeko trebatzaileen lan boltsa eratzeko lehiaketa arautuko duten Oinarriak onartu zituen. Aipatutako prozeduran parte hartu ahal izateko, ohiko baldintzez gain, honako baldintzak bete beharko dira:

a) 4. Hizkuntza eskakizuna izatea.

b) Euskal Filologian lizentziatua izatea.

Aipatu Oinarriak zein Eskabide eredu ofizial eta normalizatua Aurrera Plazako 3. zenbakian Udalak dituen bulegoetan daude eskuragarri. Eskabideak aurkezteko azken eguna MARTXOAK 4a izango da.



ARESOKO UDALA

ZENBAIT ESPEZIEREN OHIAN-ENKANTEA

1.- Aprobetxamendua:

Hainbat espezieekin egindako hiru lote (douglas izeia, alertze japoniarra, izei gorria, intsinis pinua, haritz amerikarra, larizio pinua). Espreski baztertu dira Larrekobordan kokatutako eta 3. lotean sartutako "alertze japoniarra", 67 oin, eta "Strobus pinua", 53 oin.

2.- Oin kopurua eta metro kubikoak guztira.

4.230 oin; 1.516,82 m2 zur eta 4,11 m2 "tronquillo".

3.- Balorazio ekonomikoa, lizitatzeko oinarritzko prezioa.

28.908,66 euro, gehi % 8 (BEZ)

4.- Kokalekuak.

Aztegi, Ebarrekoborda, Merku, Iturtxo eta Larrekoborda, guztiak ere Areson.

5.- Prozedura

"Plegu itxia" prozeduraren bidez egindako enkante publikoa, sexteoa egiteko eskubidea barne. Enkantea Udaletxeko Batzar Aretoan egin da, 2005eko martxoaren 8an, asteartea, arratsaldeko 6etan. Sexteoa egiteko epea martxoaren 14an, astelehena, bukatuko da, arratsaldeko 6etan. Sexteoa eginen balitz enkantea "behin-behinekoa" izanen litzateke, eta beste enkante bat egin beharko litzateke, "behin betikoa", martxoaren 15ean, arratsaldeko 6etan.

6.- Proposamenak

Udal idazkaritzan aurkeztuko dira, edo bestela dagokion legezko bidetik, **enkantea egin baino lehenago.**

7.- Proposamenak irekitzea.

Ekitaldi publikoa izanen da, enkantea egiteko finkatutako ordua baino **ordu erdi geroago.**

8.- Baldintza administratiboaren eta teknikoaren plegua.

Interesa dutenen esku egon da **udal idazkaritzan eta Rubio papedendean** (Iruñeko Bergamin kalea, 10)

Areson, 2005eko otsailaren 17an.
Alkatea, Mikel Baraibar

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko otsailaren 20a, igandea ▶ III. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Kuartasqueta, Adura, Abotzur, Alege, Alkiza, Altxo, Amerieta, Anorta, Balaran, Beasanta, Berastegi, Eduain, Herrialde, Ibarra, Itxaslegui, Iturri, Larramendi, Leizola, Lizartza, Oihenitz, Oñena, Tolosa, Villabona, Zuzuki
bestenik: Leizaldeko Euskara Batzordea

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Eusko
Jaurjaritza,
Kultura Saila

GAURKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

08

hotzena

04

BIHARKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA
ARALARREN



Guardetxe: bai
Albi: bai

Pagomari: bai
Igaratza: bai

HITZA-KO BEZEROEN
ARRETA ZENBAKIA
(zalantzak, harpide egiteko...)

943
30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Ibarra. Firma bilketa presoan alde hauteskunde mahaien ondoan. Bilkura 13:00etan plazan.

Leizta. *La terminal.*

19:30ean zineman.

Tolosa. *El aviador.* 16:15,

19:30ean eta 22:45ean.

Villabona. *Los increíbles.*

17:00etan, Gurea aretoan.

AGURRAK ▶



AUPA ANDER!

Ez Espainiak, ez Frantziak, ezta elurrak ere etzizug gure borroka geldituko. Estatus politikoa alde jo ta ke! Eberat.

Elkartasuna Indiarekin

TOLOSA ▶ Jende asko bildu zen Leidorren eskualdeko Misio Taldeak Indiako proiektuetarako laguntza biltzeko Huar Misiolarien Jaialdian



Laskorain Ikastolako abesbatza izan zen partaideetako bat. I. GARCIA

ERREDAKZIOA

Atzo arratsaldean zuten hitzordua Leidor zinemaren eta erantzun ona izan zen: haur eta guraso ugari bildu zen Tolosaldeko Misio Taldeak antolatutako Haur Misiolarien Jaialdian.

Helburua Vedruna Samajik Kendra erakundea —Ibarrak Misio Taldeak bideratutako laguntzarekin— Indiako Ghogha herrian bultzatzen ari den proiektuak laguntzea zen. Eta jaialdian ondo pasatzea, noski. Behar handia dagoen lurralde hartan haurtzaindegia, eskola, eta hainbat lokal —bilerak egi-

teko, emakumeek ikasteko, kultur ekitaldiak eta zerbitzuak bideratzeko— eraiki nahi dituzte. Tolosaldean jasotzen ari diren laguntza hara ari dira bideratzen eta atzoko jaialdian lortutakoa ere hara iritsiko da.

Eszenatokiaren gainean haurrak izan ziren protagonista, batzuk kantari, besteak dantzak, musika edo gimnastika egiten. Eskualdeko herri askotakoak ziren Albiztur, Berastegi, Ibarra, Irura, Tolosa... Hainbat ikastetxetako ikasleak ziren artistak. Eta butaketan bere lagunak eta senitartekak. Ondo pasatzen eta Indiako proiektuak laguntzen.

Urtebetetzea, jaiotza, ezkontza, jaunartzea, urrezko ezteiak, agurrak... hemen argitaratzeko etorri HITZAren egoitzara; ekarri argazkia



AUPA PELLO ETA JULEN!

Aupa familia! Zuek barrutik eta guk kanpotik indar eginez lortuko diagu denak ebtxera ekartzera. Animo eta mila muxu! Askatasun haizea.



URTE ASKOAN

Anttoni Arruabarrena (Lizartza). Zorionak, seme alabak, eta Oier, Eider, Garikoitz eta Aimirren partetik.



URTE ASKOAN

Haritz Martin Kortajarena (Zizurkil). Gaur 6 urte. Zorionak ebekoen partetik eta batez ere Jokin, Harriet eta Unairen partetik.



URTE ASKOAN

Unax Altuna Etxezarreta (Amezketeta). Zorionak eta muxu handi bat. Aita, ama eta familia guztia partetik.



ZORIONAK AITONA

Atzerapenez. Batez ere Eñauten partez.



URTE ASKOAN

Imanol Mendizabal. Bihar 8 urte. Zorionak eta, ama eta Ainararen partetik.



URTE ASKOAN

Uxue Balerdi Guerrero (Alegia). Gaur 2 urte. Familiaren partetik muxu handi bat.



URTE ASKOAN

Inge Bastarrrika Arozena (Ibarra). Gaur 3 urte. Familiaren partetik.



URTE ASKOAN

Aiora Aranalde Ramiro (Berastegi). Bihar 6 urte. Zorionak biharko partez. Etxeko guztiak.

BI URTE **Egunkaria** GABE

EKITALDIA: **otsailak 20**, igandea, 11:30ean

Andoaingo Martin Ugalde Kultur Parkean

EGUNKARIAREN ALDE elkartea

